

lege berria

Sektore publikoko kontratuak eta merkaturen erreserba



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

Irabazi asmorik gabeko erakundea, Bizkaian Enplegu Zentro Berezi gisa erregistratua 1983tik, 285 zenbakiarekin.

Beraz,
35 urteko esperientzia dauka arlo honetan.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koa,

Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL)

sektore publikoko kontratuen esleipen-irizpideak aldatu ditu.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL), sektore publikoko kontratuen esleipen-irizpideak aldatu ditu.

Lege berriaren helburua zera da, kontratazio publikoan gardentasun eta eraginkortasun handiagoa izatea; gainera, **klausula sozialak*** izenekoak gehitzeko betebeharra ezarri du.

Klausula sozialak dira desgaitasuna duten pertsonen laneratze eta gizarteratzeari erreferentzia egiten diotenak.

Berritasun nagusietako bat hauxe da: 50 langiletik gora daukaten enpresek ezin izango dute Administrazio Publikoarekin kontrataziorik egin %2ko erreserba-kuotaren araua betetzen ez badute.

Kuota hori desgaitasuna duten pertsonentzako edo salbuespen neurriak dituztenentzako erreserbatua dago.

Arlo sozialeko beste berritasun bat Laugarren Xedapen Gehigarrian araututakoa da: Administrazio Publikoek gutxieneko "erreserba" portzentaje bat ezarri beharko dute diskriminazio positiboko mekanismo gisa, gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziei ere esleipenak egin ahal izateko.

1 | Zer da gizarte ekineneko Enplegu Zentro Berezi bat?

Enplegu Zentro Berezien arteko tipologia berri bat da, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen eta horien laneratzearen inguruko Legean definitua. Irabazi asmorik gabeko enplegu Zentro Bereziak, hala nola Lantegi Batuak, gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziak dira.

2 | Zertan datza SPKLren 4. Xedapen gehigarria?

SPKLren Laugarren Xedapen Gehigarrian araututako erreserbaren ondorioz, Administrazio Publiko guztiek honako betebeharra dute: kontratu publikoen edo horien lote batzuen esleipen-prozedura batzuk gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziarentzako erreserbatzea.

3 | Derrigorrezkoa al da erreserba horiek erabiltzea?

Bai, Administrazio Publiko guztiek erreserba-portzentaje bat ezarri behar dute.

4 | Zein kontraturi aplikatu ahal zaie erreserba?

Kontratu mota GUZTIEI aplikatu ahal zaie.

5 | Zer eduki behar da kontuan erreserba erabiltzeko?

Erreserba erabiltzen duten prozedurek ARAU BERBERAK dituzte, zenbatekoa, esleipena egiten duena eta esleipen prozedura kontuan izanda.

Berezitasun bakarra zera da, lizitazio-iragarkian Laugarren Xedapen Gehigarria aipatu behar dela, gizarte ekimeneko Enplegu Zentro Bereziei erreserbatutako kontratua dela adieraziz.

Era berean, erreserba aplikatzen den kontratazio-prozeduretan, ez dagokio behin betiko bermea eskatzea (azken prezioaren portzentaje bat ematea kontratazio-organoari), ez bada kontratazio-organoak beharrezkotzat jotzen duela, arrazoi bereziengatik, eta kontratazio-espedienteak arrazoituta dagoenean.

6 | Enplegu Zentro Berezi batek ez badu berriz ere adjudikaziorik lortzen, zer gertatzen da bertako langileekin?

Kontratuaren xedeko zerbitzua ematen duen enpresa Enplegu Zentro Berezia den kasuetan, adjudikazio-hartzailea den enpresak honakoa egin beharko du: kontratu horretan lanean ari ziren desgaitasuna duten pertsonak subrogatu.

!!!
Lege berria
2018ko martxoan
jarri zen
indarrean

